

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 92/2020 Foru Agindua, apirilaren 24koa, Lagrango arau subsidiarioen aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa formulatzen duena

Erreferentziatzko aldaketa puntualaren izapidetzea ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren menpe dago; prozedura hori Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak arautzen du.

Prozedura horren barruan, 2019ko martxoaren 11n, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailak indarreko arau subsidiarioen aldaketa puntualari buruzko ingurumen agiri estrategikoa jaso zuen Lagrango Udalarengandik, ingurumena ebaluatzeko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bidez araututako gutxieneko edukiaren arabera, eta baita hirigintza agiria ere.

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, aipatutako dokumentazio hori jaso ondoren, hasiera eman zion kontsultak egiteko 45 egun baliouduneko aldiari, eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunentzat, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritako moduan. Horri dagokionez, esan beharra dago kontsulta aldia eten egin zela; izan ere, ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren espedientean ez zegoen Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legeak eskatzen duen jasangarritasun energetikoari buruzko azterketarik. Ondorioz, sustatzaileak eskatutako agiriak aurkeztu arte eten zen kontsulta aldia. Agiria aurkeztutakoan, berriz ere ekin zitzaion kontsulta aldiari, 2019ko ekainaren 25ean.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2020ko apirilaren 17an eman zuen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (19/77 espedientea).

1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatuko den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak


1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena:

Lagrango lurzoru urbanizaezinean bada 51,40 hektareako kirol erabilerarako zona: golf zelaia, herrigunearen ipar-ekialdean. Eremu horretan, golf zelai bat izan zen 1990eko hamarkadaren hasieratik 2013. urtera arte. 2013an, eskualdeko golf jarduerak Urturin zentralizatzeko asmoa zegoela eta, Lagrango instalazioak itxi egin zituzten.

Instalazioak ez ziren zenbait urtez erabili, eta Araban golfarekin lotuta eskaintza zabala dagoenez, ez da gomendagarria Lagrango golf zelaia berriz martxan jartzea. Hori del eta, Udalak zona horretan baimendutako erabilerak ugaritzea planteatzen du (egun golferako baino ezin da erabili), beste kirol, kultura edo aisialdi ekipamendu batzuk jarri ahal izateko. Hauek dira proposamenaren gakoak:

- Ez du zehazten zein izango diren erabilerak, soilik zehazten du "haien izaera eta ezaugarriak direla eta landa eremuan derrigorrez gauzatu beharreko jarduerak soilik" izango direla.
- Ez ditu golf zelaiaren azpizonak aldatzen, ez eta zona bakoitzean aurreikusitako hirigintza parametroak ere.
- Erabileren definizio xehatua egiteko, plan berezia idatzi behar da, eta hori ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren menpe dago.

1.2. Ebaluatuko den eremu geografikoa:



1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denaren arabera, guztira bi aukera hartu dira kontuan:

“0” aukera (ez da hautatu): Ez esku hartzeak udalerriko lurzoru urbanizaezinean dagoen kirol erabilerarako zonako egungo hirigintza egoera mantetzea ekarriko luke. Zona horretan eraikuntzako erabilerak eta bestelakoak daude baimenduta, baina soilik golfarekin lotutakoak.

Hona hemen ez esku hartzeko aukeraren xehetasunak:

- Lurzoru urbanizaezinaren zonakako banaketa: Kirol erabilerarako zona: Lagrango golf zelaia. Lagrango golf zelaia inguruko eremuak hartzen ditu.

- Baimendutako eraikuntza erabilerak:

- Eraikigarritasunik gabeko azpizonak:

1. Golf zelaia.
2. Oinezkoentzako eremuak.
3. Aparkalekuak.
4. Aisialdirako zona, paseo perimetrala.

- Eraikigarritasuna duten azpizonak:

1. I. U-1 azpizona: hondakin uren arazketa.
2. I. U-2 azpizona: energia elektrikoaren eraldaketa.
3. I. U-3 azpizona: ura edangarri egiteko estazioa.

4. 1 partzelaren azpizona, hirugarren sektoreko erabilerarako eta golfarekin lotutako ekipamenduetarako.

5. 2 partzelaren azpizona, hirugarren sektoreko erabilerarako eta golfarekin lotutako ekipamenduetarako.

6. 3 partzelaren azpizona, hirugarren sektoreko erabilerarako eta golfarekin lotutako ekipamenduetarako.

7. 4 lurzatiaren azpizona, zaindariaren etxerako.

Kontuan hartuta ekipamendu hori egun itxita dagoela eta azalera hori guztia soilik erabilera horretarako uzteak ez duela zentzurik, Arabako Mendialdean bertan eskaintza baitago (Urturi) eta Arabako beste udalerrri batzuetan ere antzeko jarduerak baitaude (Zuia, Larrabea...), bai eta inguruko probintzia eta erkidegoetan ere (La Grajera golf zelaia edota Logroñoko Rioja Alta), Lagrango Udalak uste du egungo egoeran jarraitzea ez dela bideragarria ez arlo teknikoan, ez arlo ekonomikoan. Ingurumen kontuei dagokienez, "0" aukera hautatuz gero, lursailek egungo egoeran jarraituko lukete, eta horrela, ezinezkoa izango litzateke herriaren garapen sozioekonomikoa bultzatzen beste erabilera edo jarduera batzuk programatzea.

"1" aukera (hautatutakoa):

"1" aukera Lagrango golf zelaiaren kirol erabilerarako zonan bestelako erabilerak baimentzean datza; izan ere, gaur egun golfarekin lotutako jarduerak baino ez daude baimenduta. Erabilera gehiago baimenduz gero, haien izaera eta ezaugarriak direla eta derrigorrez landa eremuan kokatu beharrekoak baino ez lirateke baimenduko.

Lurzoruren eta Hirigintzaren ekainaren 3ko 2/2006 Legea garatzeko presazko neurrien ekainaren 30eko 105/2008 Dekretuak 4. artikuluan ezartzen duenari jarraikiz, aurreko paragrafoan aipatutako jarduerak baimentzeko, plan berezi bat idatzi eta onartu beharko da, jarduera horiek 2/2006 Legeko 28.5.a) artikuluan jasota daudelako eta 5.000 m² baino gehiagoko lurzoru azalerari eragiten diotelako. Plan berezi hori 2/2006 Legeak 59.2.c.7 artikuluan adierazten duenarekin bat etorritik idatzi eta onartu beharko da, eta hori egitean, udal planeamenduak baimendu ditzakeen erabilerak mugatu eta xehetasunak zehaztu beharko dira.

Hona hemen proposamearen xehetasunak:

- Lurzoru urbanizaezinaren zonakako banaketa: Ekipamendurako zona. Lagrango antzinako golf zelaiaren azalera hartzen du. Ezartzen den erabileraren definizio xehatua egiteko, plan berezia idatzi behar da (Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 59.2.c.7 artikulua).

- Baimendutako eraikuntza erabilerak:

- Eraikigarritasunik gabeko azpizonak:

1. Dauzkaten izaera eta ezaugarriak direla eta nahitaez landa eremuan kokatu behar diren ekipamenduekin lotutako eraikigarritasunik gabeko erabilerak, baldin eta aurrez erabilera publikoak edo gizarte interesekoak direla adierazi bada (Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren 42. artikulua), besteak beste, honako hauek:

- a. Kirol ekipamendua.

- b. Kultura ekipamendua.

- c. Aisialdirako ekipamendua, aisia intetsiborako eta estentsiborakoak (Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren 25. eta 26. artikulua).

2. Ingurumena hobetzeko erabilerak (Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren 24. artikulua).

3. Aisialdirako erabilerak (Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren 25., 26. eta 27. artikulua).

4. Aparkalekuak Soilik erabilera eta jabari publikoko aire zabaleko aparkalekuetarako erabilera; aukera dago markesinak jartzeko, baldin eta eremurako derrigorrezko urbanizazio proiektu orokorrean zehazten diren ezaugarri estetikoak badituzte.

– Eraikigarritasuna duten azpizonak:

1. I. U-1 azpizona: baimendutako erabileretarako beharrezkoak diren saneamendu instalazioak.

2. I. U-2 azpizona: baimendutako erabileretarako beharrezkoak diren eletrizitate instalazioak.

3. I. U-3 azpizona: baimendutako erabileretarako beharrezkoak diren hornikuntza instalazioak.

4. Azpizonak: 1 lurzatia, 2 lurzatia, 3 lurzatia eta 4 lurzatia:

a. Baimendutako erabilerekin lotutako eraikinak eta instalazioak.

b. Baimendutako erabilerekin lotutako hirugarren sektoreko erabilerak.

c. Zaintzailearen etxea, haren beharra dagoela justifikatuta; soilik 4 lurzatian.

Ingurumen kontuei dagokienez, "1" aukera hautatuz gero, eremuko azpizonetan egungo egoera mantenduko litzateke, ez bailirateke azpizonak edota aurrez diren parametroak aldatuko.

Ikuspegi sozioekonomikoari dagokionez, baimendu daitezkeen erabilerak ugaritzen badira, landa eremurako ekintza positiboko proposamenak eta baliabideak programatzeko erabili ahal izango da lursaila, kokapenarekin bateragarriak baldin badira.

2. Kontsulta egiteko fasearen laburpena

2019ko ekainaren 25ean, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz. Taula honetan, kontsulta egin zaien erakunde, entitate eta elkarteak agertzen dira, bai eta haietatik zeinek erantzun duen ere:

URA – Uraren Euskal Agentzia	✓
Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritza	✓
Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza	✓
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza	
EEE - Energiaren Euskal Erakundea	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkarte	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	✓
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Birdlife	
Lagrango Udala	
Lagrango Administrazio Batzarra	

Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	✓
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	✓
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	✓

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo oharren kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 19/77 espedientean dago eta www.araba.eus webgunean):

- Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Saileko Zuzendaritzak Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren txosten bat helarazi zuen, eta bertan adierazi zuen aldaketa puntualaren bidez garatuko den eremuan ez dagoela balio historiko eta kulturala dela-eta babestutako elementu edo higiezinik. Beraz, ez dago eragozpenik izapidetzeko.

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak adierazi zuen proposatutako aldaketan ez dagoela eragin arkeologikorik.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi zuen aldaketa puntualaren eremuan ez dagoela eraginik kultura ondarean.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak txostena eman zuen eta, aldaketa puntualaren proposamenaren laburpena egin ostean, natura ondarearen gaineko eraginaren azterketa egin zuen:

- Aldaketa puntualaren eremuan (golf zelaia) hainbat habitat katalogatu daude, besteak beste, honako hauek: 9230 kodea duena (harizti galaiko-portugaldarrak, *Quercus robur* eta *Quercus pyrenaicarekin*), 9260 kodea duena (*Castanea sativa* basoak) eta 6210* kodea duena (larre mesofiloak *Brachypodium pinnatumekin*). Hala eta guztiz ere, egungo zonakatzea mantenduko denez, plan berezia izapidetu behar denez (baita ingurumen alorrean ere) eta ingurumen agiri estrategikoan ingurumen integrazioarako neurri egokiak ezarri direnez, pentsatzekoa da habitatatak egoera egokian mantenduko direla.

- “Eskatzen dugu araua subsidiarioen adalketan berariaz jaso dadila zonan eraikitzen diren instalazioen funtzionaltasuna eta segurtasuna bermatzeko irtenbiderik egokiena jaso beharko duela idazten den plan bereziak, zona horretan gertatzen diren konektibitate ekologikoko prozesuak kaltetu ez daitezen.” Horiek horrela, eskatzen dugu, momentuz, aldaketa puntualaren bidez, ez dadila baimenik eman golf zelaiaren inguruko itxitura guztiz ixteko, eta positibotzat jotzen dugu inguruko itxituraren leku estrategikoetan faunarentzako pasalekuak egitea, ingurumen agiri estrategikoan proposatzen den bezala.

- Azkenik, kontuan izanda golf zelaia hornitzen duen linea elektrikoa zuzendu beharreko gauzetako bat dela (kolperik eta elektrokuziorik izan ez dadin) eta golf zelaia hegaztiak linea elektrikoetatik babesteko zonan dagoela, “sustatzaileari gomendatzen diogu konpainia banatzailearekin harremanetan jartzeko, linea elektriko horretan beharrezko zuzenketa lanak egin ditzan”.

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak honako hau adierazi zuen: “Erakunde honetan ez dago jasota aipatutako kokapenean lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik gauzatu denik; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan”. Horrez gain, honako hau adierazi zuen: “Kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez”.

• Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak txostena eman zuen, eta beran ondorioztatu zuen aldaketa puntualak ez duela inolako eraginik abeltzaintza eta nekazaritza jardueran, ez eta Landa Bideen Erregistroan inskribatutako bideetan ere.

• URA - Uraren Euskal Agentziak 2019ko uztailen lehen txostena egin zuen, eta bertan zehaztu zuen eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri ziola, egokitzen joz gero gaia-
ren gainean informa zezan, Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak ezarri-
takoarekin bat etorritik.

2019ko irailean, bigarren txostena eman zuen (kontsulten lehen fasean egindakoaren labur-
pena da; kontsulta aldia bertan behera geratu zen, espedientean agiriak falta zirelako, txosten
honen hasieran azaldu bezala) eta, bertan, honako ondorio hauek agertzen ziren:

1. Beharrezkoa da sustatzaileak eremu horretan lurpean dauden jariatzeei buruzko agiri
grafikoak aurkeztea.

2. Eraikigarritasun erabileretan, errekarerik 15 metroko atzerapena izan behar da eta 5
metroko atzerapena lurperatutako jariatzeerik.

3. Jarduketek jabari publiko hidraulikoari eragiten badiote, beharrezkoa da Ebroko Konfede-
razio Hidrografikoaren baimen administratiboa (URAREN bidez izapidetu behar da).

4. Aldaketa puntualean proposatutako erabilera berriren batek isurketarik eragin badezake,
ezingo da erabilera hori gauzatu Lagranen egingo den HUA abian jarri arte.


2019ko urrian, hirugarren txosten bat eman zuen URAK, eta bertan, Ebroko Konfederazio
Hidrografikoak egindako txostenaren berri eman zuen. Txosten horrek, aldaketa puntualaren
laburpena egin ostean, honako ondorio hau jasotzen zuen: "Ingurumenaren ikuspegitik (...) ba-
teragarritzat jotzen dira, sistema hidrikoari dagokionez, baldin eta beharrezko prebentzio neurriak
eta neurri zuzentzaileak hartzen badira, proposatutako aldaketak eragina izango duen zonan eta
haren inguruan eragina ahalik eta txikiena izan dadin. Neurri horien bidez, bermatu beharko
da ez dela nabarmen aldatuko esku hartzen den zonako dinamika hidrologikoa eta eragindako
zonen ingurune hidrikoa (bai azalekoa, bai lurrazpikoa) babestuko dela une oro, kutsatu edota
degradatu ez dadin."


3. Eragina jaso dezaketen ingurumen balio handieneko elementuak. Ingurumen inpaktu nagusiak

Atal honetan ebaluatu egiten dira egungo arau subsidiarioek finkatutako eremu batean
baimendu litezkeen erabilerak ugaritzeak izango lituzkeen ingurumen ondorioak:

EGUNGO EGOERA (ARAU SUBSIDIARIOAK) - 0 AUKERA	ALDAKETA PUNTUALA - 1. AUKERA
<ul style="list-style-type: none"> — Golf zelaia. — Oinezkoentzako eremuak. — Aparkalekuak. — Aisiarako guneak. 	<ul style="list-style-type: none"> — Dauzkaten izaera eta ezaugarriengatik nahitaez landa eremuan jarri behar diren ekipamenduekin lotutako eraikigarritasunik gabeko erabilerak, baldin eta aurrez erabilera publikokoak edo gizarte interesekoak direla adierazi bada. Besteak beste, honako hauek: Kirol, kultura eta aisialdi ekipamenduak (aisialdi intetsiborako eta estentsiborako ekipamenduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren 25. eta 26. artikuluetan jasotakoak). — Ingurumena hobetzeko erabilerak (Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren 24. artikulua). — Aisialdirako erabilerak (Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren 25, 26. eta 27. artikulua). — Aparkalekuak.

Jarraian, egungo aldaketa puntualaren ondorioz aurreikusitako diren ingurumen eraginak jasotzen dira. Aldaketa puntuala estrukturala da, ez xehatua. Eskatutako definizio xehatuan, alegia, plan berezian, eta haren ingurumen ebaluazio estrategikoan (21/2013 Legeak eskatutakoarekin bat etorritik) ebaluatuko da behin betiko baimentzen diren erabileren eragina zehatz-mehatz.

ERAGINDAKO INGURUNEN ELEMENTUA/ EREMUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Lurzoruaren okupazioa eta kontsumoa	<p>Eremuak 514.086,70 m²-ko azalera du, perimetroaren zati bat hesituta dago eta ingurune naturalean integraturik dagoen golf ekipamendu batek okupatzen du. Ereduaren ehuneko 63 abandonatutako golf zelaiak dira (belarra, sartzeko bideak eta jarduerarekin lotutako instalazioak; esaterako, komunak, aldagelak, gizarte zentroa, bulegoak, aparkalekuak etab.), eta eremuaren gainerako ehuneko 37an elementu naturalak daude.</p> <p>Planteatzen den jarduketak ez du eremuaren azalera aldatuko, ez eta eraikigarritasunik gabeko azpizonak ere, ez eta azpizona eraikigarriak ere (ezta haien hirigintza parametroak ere); horrenbestez, ez da aldatuko aurrez existitzen den lurzoruaren okupazioa eta kontsumoa.</p>
Landaredia eta habitat naturalak	<p>Arau subsidiarioen aldaketa puntualak ez du okupazio era aldatuko, ez eta jarduketa eremuaren azpizifikazioa ere, nahiz eta, adierazi den moduan, eremuaren badiren zenbait ingurumen balio: habitat naturalak eta landaredia, eta horiengan eragina izan dezakete baimendu daitezkeen erabilerekin.</p> <p>Aldaketa puntualaren eremuan (golf zelaiak) katalogatutako habitat nagusiak hauek dira: 923 (harizti galaiko-portugalarrak, <i>Quercus robur</i> eta <i>Quercus pyrenaica</i>ekin), 9260 (<i>Castanea sativa</i> basoak) eta 6210* (larre mesofiloak <i>Brachypodium pinnatum</i>ekin)</p>  <p>Horiek horrela, eta ez dakigunez eremu horretan zein erabilera edo jarduera baimenduko diren azkenean, prebentziozko zenbait neurri hartu behar dira ingurune integrazioarako, eta neurri horietako batzuk ingurumen agiri estrategikoan bertan jasotzen dira.</p>
Paisaia	<p>Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Bikainen Katalogoaren arabera (Diputatuen Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabakiak onetsia) paisai bikain gisa katalogatutako Mendiluzea-Jaundel-Luzaran (5. kodea) paisaiari eragiten dio eragin eremuak. Hori dela eta, etorkizunean eremu horretan gauzatzen den edozein jarduerak kontuan hartu beharko du paisaia hori, eta derrigorrez hartu beharko dira ingurumen eta paisaia integrazioarako beharrezko neurriak.</p>
Igarobide ekologikoak	<p>Golf zelaiaren eremuaren azalaren zati handi baten perimetroa hesiturik dago, eta horrek fauna espezie gehienaren konektibitate ekologikoko prozesuak oztopatzen eta eragozten ditu. Horiek horrela, eta kontuan izanda itxitura perimetral hori uzteko asmoa dagoela, beharrezkoa da ingurumen integrazioarako neurriak hartzea, prozesu ekologikoak gauzatu ahal izan daitezkeen, ingurumen agiri estrategikoan jasota dagoen bezala.</p>
Onura publikoko mendiak	<p>Golf zelaiaren eremuaren gutzitako azalaren ehuneko 75 baino pixka bat gehixeago, onura publikoko 174 mendian dago (Antuspia), eta, beraz, onura publiko mendian dagoen azalera martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak arautzen du.</p>
Ingurune sozioekonomikoa	<p>Ingurumen agiri estrategikoan nabarmentzen den bezala, positibotzat jotzen da egun erabiltzen ez den golf zelaiaren eremuan baimendu daitezkeen erabilera ugartzeko proposamena. Horiek horrela, jarduera berriekin lotutako ekimenen alde egin liteke eta Lagrango Udalerriko garapen sozioekonomikoa bultzateko aukerak eskaini; izan ere, udalerriak jarduera ekonomikoki gutxi du eta biztanleria zahartzen ari da.</p>



4. Ondorioak. Ingurumen baldintzak

Lagrango hiri antolamendurako arau subsidiarioen aldaketa puntualaren hirigintza agiriak neurri babesle eta zuzentzaile hauek hartu behar ditu kontuan:

- Hirigintza dokumentuan jaso beharko dira eta ondoren ezarri egin beharko dira ingurumen agiri estrategikoaren II.9. atalean, "Ingurumenean sortu daitezkeen ondorio negatiboak prebenitzeko, murrizteko eta ahal den heinean zuzentzeko aurreikusitako neurriak" zehaztutako neurri babesleak eta zuzentzaileak (22-23 orrialdeak). Horien artean, honako hau nabarmendu behar da:

"Ezingo da gauzatu *Quercus pyrenaica* haritz baso helduak hartzen dituen eremuak honda ditzakeen jarduketarik, Europar Batasunaren intereseko habitata baita (kodea: 9230, harizti galaiko-portugaldarrak *Quercus robur*ekin eta *Quercus pyrenaica*ekin), ez eta gaztainondoak honda ditzakeen jarduketarik ere, Europar Batasunaren intereseko habitatak baitira (kodea: 9260, *Castanea sativa* basoak)".

Hirigintza agiriaren araudian eremu horien mugaketa zehatza jaso beharko da mapa batean.

- Jasangarritasun energetikoari buruzko azterketan jasotako neurriak ere jaso beharko dira hirigintza agirian, zehazki, honako atal hauetan ondorio gisa adierazitakoak:

- V.5 Jasangarritasun energetikoaren eskakizunetara egokitzeari eta eraikinetan eta azpiegituretan energia berriztagarriak ezartzeari buruzko ebaluazioa.

- V.6 Mugikortasunari buruzko azterketa, zehazki, energia kontsumoarekin eraginari buruzkoa, besteak beste, garraio pribatuaren ordezkoak eta motorrik gabeko mugikortasuna eta mugikortasun eza bultzatzeko politikei buruzkoa.

- V.7 Kanpoko argiteria publikoari buruzko azterketa, eremu publiko bakoitza argiztatzeko argiztate maila eta denbora tarte egokia ebaluatzeko, bai eta baso faunaren gaineko eragina murrizteko moduan diseinatzeko ere.


- V.8 Erabilera publikoko ibilgailu elektrikoak kargatzeko estazioak eta bizikletak erabiltzea sustatzeko eta haiek aparkatzeko guneak.

- Antolamendu xehatua eta erabilera eta jarduera zehatzak plan berezia izapidetuz arautu arte, ezingo da erabat itxi golf zelaiaren perimetroan dagoen hesia, ingurumen kalitate eta zaingarritasun handia dituen eremu horren prozesu ekologikoak ez oztopatzeko. Hesiak jartzen diren zatietan, faunarentzako pasabideak jarri beharko dira leku estrategikoetan, eta pasabide horiek Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren zerbitzu teknikoek balioetsi beharko dituzte.

- Enpresa hornitzailearekin beharrezko izapideak egiten hasi behar da, aldaketa puntualaren eremuko (Lagrango antzinako golf zelaia) linea elektrikoarekin talka egitea edo elektrokutatzea eragozteko neurriak hartzeko.

- Aldaketa puntualaren hirigintza agiriaren arautegian adierazi behar da aldaketaren eremua Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Bikainen Katalogoko (Diputatuen Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabakiak onetsia) Mendiluzea-Jaundel-Luzaran paisaia bikainean dagoela (5 kodea). Horrez gain, araudi horretan jaso behar da eremu horretan etorkizunean gauza litekeen beste edozein jarduerak kontuan izan behar duela paisaia, eta ingurumen eta paisaia integrazioarako beharrezko neurri guztiak hartu beharko direla.

- Ahalik eta ingurumen inpaktu txikiena eragiteko, etorkizuneko erabilera eta jarduerak Lagrango golf zelaiaren eremuaren zona honetan gauzatu ahal izango dira:



- Golf zelaiaren eremuan etorkizunean ezar litezkeen erabilerek ezingo dute inpaktu nabarmenik izan inguruko naturgune babestuetan, ez eta inguru hurbileko paisaiaren kalitatean ere; hori dela eta, ingurumenaren eta paisaiaren osagai guztiak hartu beharko dira kontuan eta ezinbestekoa izango da ingurumen eta paisaia integrazioarako beharrezko neurri guztiak hartzea.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Lagrango arau subsidiarioen aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa formulatzea.

Bigarrena. Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumen txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 24a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA